

erdiko kaira

Internet



DANI BLANCO

Tokitan.tv

Bidaien txoko birtuala

Zeinek esan du bidaiatzeko etxetik atera, leku exotikoak ezagutu eta muturreko abenturak bizi behar direnik? Sartu Tokitan.tv-n eta has zaitez bidaiatzen.

UXUA LARRETXEA

EDONOREN ESKU dago bidaiatzea, horretarako gogoia badago behinik behin. Txina, Senegal, Pirinioak, Mexiko, Lekeitio, Australia edo Bidarrai. Horietako batzuetara joateak ahalegin, antolamendu edo diru gehiago eskatzen du, baina besteetarako nahikoa da borondatea izatea. Urrutiko helmugak edo gertuagokoak, baina denek dute abentura puntua eta denak izan daitezke istorio politen sorburu. Filosofia horrekin sortu du Haritz Rodriguezek (Caracas, 1978) Tokitan.tv, Internet bidezko bidaien inguruko telebista. “Ohituta gaude bidaiak handiak ikustera; eliteko kirolari eta abenturazaleek euren bidaiak zirraragarriak erakusten

dizkigute, baina gutako edonork izan ditzake abentura txikiak, eta horiek guk geuk bizi ditugunez guretzat abentura handiak dira”. Egingarriaren mugan dauden irtenaldi horien bilgune da, besteak beste, webgune berria. Aldarria sinplea da: norbaitek bidaiatzeko gogoia badauka ez dadila etxean geratu eta ondoren bere bidaiak jendearekin elkar bana dezala.

Astero produkzio propioko bideo bat txertatzen du Haritz Rodriguezek atarian. Berak egindako bidaiak ikus daitezke zuzeneko kontakizunekin: Greziako uharteak belaontzian, Afrika Iparraldea eta Iberiar Penintsula errepi-



Piraguaz egindako zeharkaldian, Nafarroako Pirinioetan, Greziako itsasoan barrena edo, beheko argazkian legez, Aralarko pagadietan, Haritz Rodriguez bidaiari nekazina da. Tokitan.tv gunean partekatu ditu bidaia horiek, baita mundu guztiari aukera eskaini ere, bere bidaiak kontatzeko.

dez, oreinen ugalketa Sorian, piraguan euskal kostaldean, onddo bilketa Nafarroan edo bizikleta gaineko ibilbideak. Lehenengo denboraldiari begira 32 kapitulu prestatu ditu. Bideoetan grafismo geografiko eta azalpenekoak sartu ditu, herrien datuak eta informazio gehigarria emateko. Unean uneko lekuarekin loturiko argazkiak bilatzeko aukera ere badago. Edonola ere, webguneak parte hartzeko hainbat aukera ematen ditu; esaterako, nahi duen orok bere bidaiako bideoa bidal dezake “Zuen bideoak” deritzon atalera. Beste aukera bat da formulario erraz bat betez beste zerbitzu batean dagoen –Euskaltube edo Youtube, kasu– bideoaren lotura bidaltzea Tokitan.tv-n txertatzeko.



Aipaturikoen gain, sare sozialek –tartean Twitter eta Facebook– esperientziak eta informazioa elkartrukatzeko ematen duten aukera baliatu nahi izan du Rodriguezek erabiltzaileekin hartu-emanetan egoteko. Facebookek bidaia bitakora gisara funtzionatzen du, baina baita aldizkari bezala ere. Bidaiekin eta abenturekin zerikusia duten eta han-hemenka aurkitzen dituen artikuluak nabarmentzen ditu bertan. “Bidaian nagoen bitartean txoko horietan egunez egunekoak kontatzen ditut, bidaia kaiera gisara”. Horri esker elkarrizketak sortzen dira, hala nola, iruzkin bidez. Norberak ere bidaiatzen ari dela Twitter bidez eta etiketez baliaturik une horretan non dagoen esan dezake.

Bideoak enkargatzeko aukera

Aipaturiko aukerez gain bestelako zerbitzu profesional batzuk ere eskaintzen ditu Toki-

tan.tv-k prezio baxuko ikus-entzunezko ekoizte-txea izanik; horien artean enkarguz egindako bideoak egitea da azpimarragarriena. Turismoaren eremua oso zabala denez gero, eta ikus-entzunezko komunikazioak berebiziko garrantzia duenez, hainbat aukera daude Rodriguezen esanetan: “Helmuga turistikoa, natur guneetan ekintzak eskaintzen dituzten enpresak, hotelak...

eta abar sustatu nahi izanez gero bideoak egiten ditugu, berezko estiloarekin”. Horretaz gain, ondorengo zerbitzuak ere eskaintzen ditu: ekitaldien jarraipen informatiboa, idatzizko erreportajeak, webgune eta bideoblogen diseinua, iragarkiak kontratazeko edo Tokitan.tv-ko bideoen babesle bilatzeko aukera, sare sozialen kudeaketa, eta, leku, ekimen edo jardunaldi bat sustatzeko abagunea.

Horren denaren atzean, berriz, Haritz Rodriguez kazetari eta blogaria dago. Venezuelan jaiotako donostiar honek duela urte eta erdi erosi zuen bideo-kamera eta orduan hasi zen esperimentatzen. Iazko maiatzean ekin zion serio kapituluak grabatzeari. Egun, bera dabil bideoak editatzen, webgunea prestatzen eta kudeatzen. Nolanahi ere, tarteka laguntza ere izaten du; bloga, bideoen azpidatziak eta artikuluak euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz daudenez, bere arrebaren eta koinatuen bidez egiten ditu itzulpenak. Diseinurako Mikel Plaza eta Goio Telletxea diseinatzaileen laguntza du eta alderdi teknikorako Gorka Julio informatikari eta blogariarena. Egin beharreko lanak, bideotik harago, komunikazio landuagoa eskatzen badu, edo bideoblog bat enkarga-

Webguneak parte hartzeko hainbat aukera ematen ditu; esaterako, nahi duen orok bere bidaiako bideoa bidal dezake “Zuen bideoak” deritzon atalera

tzen badiote, freelance talde profesional batekin elkarlanean ere aritzen da.

Bidaia eta informazio zein komunikazio teknologiak ditu zaletasun, eta horrek eraman du Tokitan.tv sortzera. Horretaz gain, kalitatezko edukiak izango zituen euskarazko bideo bloga egitea ere bere asmoen artean zegoen abentura honi ekin zionean. Ez da lehen aldian proiektu berritzaile batean dabiltzela, bideoak euskaraz partekatzen Euskaltubeko sorreran ere aritu baitzen Rodriguez.

Pixar etxearen animaziozko *Up* filmean kontatzen den istorioa erabili du donostiarrak webgune berriaren zabalpen trailerri ilustratzeko: “Tokitan.tv-k adierazi nahi duenarekin parekidetasunak aurkitu nizkion *Up* filmari, bidaia egitea edonoren esku dagoela eta gogoia izanez gero azken unera arte ez dela utzi behar esaten baitu”. Finean, pelikulan kontatzen dena istorio sinplea izanik ere metafora polita da: bikote bat bizitza osoa bidaiatu nahian dabil, baina emakumea amets hori bete gabe hiltzen da. Halako batean aitona globo bat jartzen dio etxeari eta bidaiari ekiten dio ume esploratzaile baten konpainian. Beraz, azkenean bere bizitzako bidaia egiten du eta sekulako abenturak gertatzen zaizkio. Filmari omenaldi txiki bat egitearekin batera, trailerra jolas moduan planteatzeko aitzakia ezin hobea izan du, *UP*eko irudiak eta Haritz Rodriguezek zituenak oso antzekoak baitziren. “Batzuei gehiago gustatu zaie beste batzuei gutxiago, baina arrakasta dezente izan du, 15.000 aldiz ikusi baita Internet bidez”.

Sare sozialetan bidaiatuz

Gustura dago Rodriguez bere ekimena izaten ari den erantzunarekin, eta ohiko hedabideez gain, agerkari elektronikoetan, blogetan eta sare sozialetan jarraipena izan duela aipatu du, bereziki Twitterren eta Facebooken. “Twitterren bideoa argitaratu eta egunetan bertan jasotzen ditut iruzkinak edo erantzunak. Facebook bidez jendeak bidaiei buruzko komentarioak eta bestelako loturak sartzen ditu. Gainera, jendearen galderei erantzuteko aukera ere ematen dit”.

Tokitan-ek urrutiko bidaia eta gertuagoak biltzen dituela aipatu dugu arestian, baina non hasi eta non bukatzen da bidaia bat? “Bidaia hasten da bidaiatzeko gogoia pizten denetik eta prestaketa lanekin hastera; eta amaitu, berriz, nik uste ez dela inoiz amaitzen. Bidaia polit bat egin baduzu beti izango duzu gogoia”. Argazkien bitartez, gainera, irteera hori berriro gogoratzeko edo bizitzeko aukera dagoela gehitu du Rodriguezek.

Haritz Rodriguezen txokoak eta sentipenak

Turkia: “Anitza. Ekialderako atea da, baita Mendebaldeko alderantziko bidetik bazatoz”.

Grezia: “Argia. Etxe zuri eta koloredunekin... argi berezia dauka”.

AEB: “Film yanki bat. Telebistan ikusten den hori bera aurkitzen duzu bertan. Etxe eta auto handi horiek eta kale luzeak”.

Pirinioak: “Geure Himalaya txikia”.

Euskal Herria: “Nire herria eta kanpalekia. Bisitatzeko leku ugari eta oso politak ditu”.

“Arrazoi asko medio bidaiatzen dut, horien artean esperientzia ezberdinak izateko eta jendearekin elkarbizitzeko”. Urtero koardilakoekin Pirinioetara astebete igarotzera joaten da eta kasu horietan bizikidetzako oso garrantzitsua da haren irudiko: “Lagunekin astebete furgonetan edo kanpinean lo egiten gauza asko bizitzen dira, tartean muturreko egoerak edo ezustekoak, eta horiei taldean nola erantzun ikasten duzu, besteak beste”. Horretaz gain, leku edo mundu berriak deskubritzeko, eta lagun eta norberaren alderdi berriak ezagutzeko ere bidaiatzen duela gehitu du, norbera kanpoan dagoenean esperientzien intentsitatea hirukoiztu edo laukoiztu egiten baita. Kanpora irteteak hemen daukan bizitza edo egunerokoa hobeto baloratzen laguntzen diola ere aitortu du: “Bidaia une batean beti etortzen zait bueltatzeko gogoia; eta hona iristen naizenean eta nire lagun batekin ohi bezala kaña bat edaten dudanean, kaña hori inoiz baino gehiago disfrutatzen dut. Bueltatu zara, zure herrian zaude betiko lagunarekin eta pentsatzen duzu ‘hemen ere zein ondo nagoen’. Hori ere garrantzitsua da”.

Hainbat txoko ezagutu ditu orain arte, baina denen artean orain hiru urte belaontzian aitarekin eta haren lagunekin Greziara egindako bidaia nabarmendu du: “Belaontzian portu batetik bestera ibili ginen, ontzian bertan lo egiten eta leku ugari bisitatzen”. Gainera, bere aitarekin esperientzia hori bizi izanak ere eta bereziago egin zuen bidaia Rodriguezentzat. Azken finean, horixe dira bidaia: bizipenak, sentazioak eta sentimenduak. ■

“Bidaia hasten da bidaiatzeko gogoia pizten denetik eta prestaketa lanekin hastera; eta amaitu, berriz, nik uste ez dela inoiz amaitzen. Bidaia polit bat egin baduzu beti izango duzu gogoia”

**HARITZ RODRIGUEZ,
TOKITAN.TV-REN SORTZAILEA**